

Zestoako Udalaren eta Arkupetan Igandetako Txaranga elkartearen arteko hitzarmena

BILDURIK:

Alde batetik, Jose Francisco Mendizabal Irigoien, Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakaria eta, hitzarmen hau sinatzeko, 2017ko urtarrilaren 31ko Tokiko Gobernu Batzordearen bilkurak ahalmena denez,

Bestetik, Javier Manteca, xxxxxxxx zenbakiko Nortasun Agiria duena Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga (G75163162) elkartearen izenean,

Biek dokumentu hau emateko legezko gaitasuna elkarri onetsiz,

ADIERAZTEN DUTE

- a) Zestoako Udalak indarrean dagoen legeriaren arabera eta, bereziki, 7/1985 Legeak (apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) bere 25. artikuluan dioenaren arabera, hainbat eskumen ditu kultura eta kirolerako jarduerari zein instalazioei dagokienean.
- b) Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak herrian oso aspalditik errotoak dauden musika emanaldiak eskaintzen ditu eta, ondorioz, erreferentzia garrantzitsua da Zestoako herritarrentzat eta zeregin berezia du herriko musika jardueren sustapenean.
- c) Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak bide horretatik lan egiteko konpromisoa hartua du, eta Udalak, oharturik talde horrek garrantzi handia duela herriaren dinamizazioan, aintzat hartu du elkate horrek duen interes publikoa eta soziokulturala, besteak beste, herrian horrelako jarduerari eskaintzen duen elkarte bakarra delako.
- d) Ondorioz, erakunde horrekin elkarlanean aritzeko borondatea adierazten du.
- e) Hitzarmenak, Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarte eta Udalaren arteko lankidetzarekin zehaztu eta arautzea du helburu Zestoako udalerrian elkarte horrek garatzen dituen jarduerak sustatzeko.

KLAUSULAK

NORTASUN JURIDIKOA. Bi aldeek aitortzen dute Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkartearen zuzenbide pribatuko elkarte dela, Eusko Legebiltzarrak onartutako Elkartei buruzko ekainaren 22ko

7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa eta Zestoako Udaleko aginte organoekin inolako menpekotasunik ez duela ezta lan harremanik ere.

APLIKAGARRIA DEN ARAUDIA

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoa.
- 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoa.
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 8ko 4/2005 Legea (24.2 artikulua xedatzen duenez, "euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei").
- Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Datu pertsonalak babesteko indarrean dauden arauak
- Diru-laguntza emateko momentuan indarrean dauden udalaren eta gainerakoen arauak.

XEDEA ETA HELBURUAK:

- Herriko beste taldeekin harremana izatea eta elkarrekin jarduerak egitea.
- Harreman hori berezia eta lehentasunezkoa izango da Zestoako Musika Bandarekin, talde hori baita, neurri garrantzitsuan, Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak kideen jatorria edo "harrobia".

EKITALDIAK. Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak, besteak beste, honako jarduera edo ekitaldiak eskainiko ditu: Hamabostean behin ekitaldi bat, gainontzeko hilabete bakoitzean.

ZESTOAKO UDALAREN LAGUNTZA. Zestoako Udalak Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak antolatzen dituen jardueren burutzapen egokia bermatuko du, horretarako diruz zein azpiegituraz lagunduz. Nolanahi ere, proiektuak bideragarriak izan daitezten, beste erakunde publikoei ere diru-laguntza eskatuko die, hala badagokio (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritz...). Hala ere, beste finantzabide batzuk lortuz gero, ezingo da inoiz izan gain-finantzaketarik udalaren diru-laguntzarekin. Horri buruz, diru-laguntzaren bukaerako ordainketan edo likidazioan, udalak, gastuak eta diru sarrerak ikusi eta gero, ordaindu beharreko kopurua zuzendu egingo du, gain-finantzaketa hori izan ez dadin, eta kasu horretan onuradunak itzuli egin beharko du, hala badagokio, ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa, hala behar izanez gero.

LAGUNTZA EKONOMIKOA. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 28. artikuluan, aukera ematen die udalei zuzeneko diru-laguntzak ematea. Halaber, 22. artikulua ezartzen du (22.2.c atala), salbuespen izaerarekin, zuzenean eman ahal izango direla diru-laguntzak beti ere honako arrazoiak egiaztatzen direnean: interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa izatea edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelako arrazoiak.

Horrela bada, Zestoako Udalak, aipatutako jarduerak garatzeko, 3.900 euroko partida berezia jarriko du udal aurrekontuetan. Zestoako Udalak zenbateko hori gutxitu egingo du gain-finantziarioa gertatzen bada. Era berean, beste erakundeek ekarpenak murrizten badira, Udalak aztertu egingo du diru-partida hori handitzeko aukera.

ELKARTEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. Urte bakoitzeko urtarrilaren amaierarako, Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkartearen ordezkariak edo erantzuleak elkartearen urteko proiektua aurkeztuko du eta horren aurrekontua, beti ere, lehen aipatutako ekintzei dagokionez. Bertan honako atalak azalduko dira, besteak beste: helburuak, jarduerak edo ekintzak, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak, material baliabideak, baliabide metodologikoak, ebaluazioa... Horrekin batera, gastuen eta sarreren aurrekontua aurkeztuko da. Hitzarmen honetan eta udal aurrekontuetan ezarritako diru-laguntzen onuraduna izatea debekatzen duen arrazoirik ez dagoela egiaztatu beharko du elkarteak, erantzukizuneko adierazpenaren bidez. Aipatutako dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu gabe dagoenean, 15 eguneko epea emango zaio elkarteari, Udalak egindako errekerimendua jakinarazten den hurrengo egunetik hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko. Emandako epea igarotakoan, horiek zuzendu gabe baleude, hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango du Zestoako Udalak.

ZERGA BETEBEHARRAK. Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak bermatu egin beharko du zerga obligazioak betetzen dituela: Gizarte Segurantzarekin, Zestoako Udalarekin eta Foru Ogasunarekin (edo Estatuko Ogasunarekin hala badagokio).

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK. Jarduera interes publikokoa izanik, herritarrengan eragina duten ahozko zein idatzizko adierazpen orok Zestoako Udaleko hizkuntza irizpideak bete beharko ditu:

- Kartelak, abisuak, oharra, publizitatea.. euskaraz egingo dira; baita interneteko argitalpenetan ere (blog, webgune eta sare sozialeko profiletan).
- Hizkuntza bat baino gehiago erabili behar den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna tamainan, kolorean eta kokapenean.
- Udalarekiko harremanak euskaraz gauzatuko dira.
- Beste elkarteekiko harremanetan ere euskara erabiliko da, eta ezinbestez hizkuntza bat baino gehiago erabili behar bada, euskarari emango zaio lehentasuna tamainan, kolorean eta kokapenean.

Irizpide horren aplikazioak ezingo du, inolaz ere, herritarren hizkuntz eskubideak urratu. Zestoako Udalak ikuskatu ahal izango du aurreko baldintzen betetze maila. Zehaztutakoak betetzen ez badira, elkarteak hizkuntzen normalizaziorako plangintza adostu beharko du Zestoako Udalarekin. Horretarako Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA. Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak emekumeen eta gizonen berdintasunerako, indarrean dagoen lagaria bete beharko du. Zestoako Udalak ez dio inolako laguntzarik emango elkarteak kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten bada.

ELKARTEAREN OBLIGAZIOAK:

- Hitzarmen honetan aipatutako helburuak betetzea, proiektua betearaztea, eta hitzarmen hau egiteko arrazoi den jokabideari eustea.
- Zestoako Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea; baita eskuduntza duten beste kontrol organoek (estatukoak nahiz erkidegokoek) egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa ematea.
- Zestoako Udalari jakinaraztea beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baldin badira. Jakinarazi beharko da horien berri izan eta berehala, eta nolana ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.
- Zestoako Musika Arkupetan Igandetako Txaranga Zestoako Udalaren diru-laguntza jasotzen dutela adieraziko du bere argitalpen eta adierazpenetan.
- Jasotako fondoak itzultzea, gain-finantzazioa gertatuko balitz.
- Behar beste baimen lortzea, beren jarduerak garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

ORDAINKETA. Udalak urteko diru-laguntza honela emango dio Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteari: hiru halabetero %25a, eta azkeneko zatia (%25) urteko jarraipen batzordeak memoria onetsitakoan.

URTEKO MEMORIA. Urte bukaerarako, Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak, emandako laguntza egiaztatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu: gastuak eta diru sarrerak; jatorrizko fakturak edo egiaztatutako kopiak; lortutako emaitzen balorazio bat; urteko dokumentazioa grafiko eta ikus-entzunezkoen zerrenda dokumentazio grafikoa eta ikus-entzunezkoa. Dokumentazio hori aurkeztu ezean, Zestoako Udalak bukatutzat emango du hitzarmena eta espedientea hasiko du ofizioz, ordainduta dauden aurrerakinak itzuli daitezzen.

DIRUZ LAGUNTZEKO GASTU KONTZEPTUAK. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren izaerari erantzuten diotenak. Gastuak egiteko epea (faktura sortzea eta fakturaren eguna), oro har, urte naturala bukatzen denean amaituko da. Halaber, birkontratatzeko baldintzei buruz Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 29. eta 31. artikuluetan xedatutakoa bete behar da. Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan, legezko baliorik ez duten fakturak edo/eta egiaztagiriri jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez dituzten gastu-oharrak edo bestelako dokumentuak. Halaber, ez dira kontuan hartuko bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzukoak diren beste batzuen kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago. Dena den, eta salbuespenez, berariaz baimena eman ahal izango du Udalak, dagokion akordioaren bidez, gastu kontzeptu hori egiteko.

INOREN MATERIALAK ERABILTZEA. Hirugarren baten jabetza intelektualaren eskubideak urratu ez daitezzen, hitzarmenean aipatutako ekitaldietan interpretatzen diren lanen egile eskubideak Zestoako Udalak ordainduko ditu. Nolanahi ere, Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteari dagokio jabetza intelektualaren eskubideak dituenarengandik behar diren baimenak lortzea. Ondorioz, Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak behar diren baimenak behar den bezala ez kudeatzeagatik, jabetza intelektualaren gainean kalteren bat gertatzen bada, Zestoako Udala ez da ez zuzenean, ezta subsidiarioki ere, horren erantzule izango.

JARRAIPEN BATZORDEA. Zestoako Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteak eta Zestoako Udaleko Kultura Batzordeak bina kide izendatuko dituzte jarraipen batzordean parte hartzeko. Arduraduna Kultura batzordeburua izango da.

JARRAIPEN BILERAK. Zestoako Udala eta Arkupetan Igandetako Txaranga elkarteko ordezkariak gutxienez bi bilera egingo dituzte urtean: bata, abenduan, urteko memoria aurkeztu, ebaluaketa egin eta datorren urterako proiektua aurkezteko; eta bestea urrian. Horrez gain, jarraipen batzordeak funtzio hauek hartuko ditu bere gain: Hitzarmena betetzea eragozten duten oztopoak kentzea; Hitzarmen honetan jasotako helburuak beteko direla bermatzeko zein neurri hartu behar diren adieraztea eta proposatzea; Hitzarmenak sor ditzakeen interpretazio eta gauzatze arazoak konpontzen saiatzea

HITZARMENAREN IRAUPENA. Hitzarmena urtetik urtera berrituko da, beti ere alderdi bien artean jarraipen bilera egin eta gero. Martxoaren 30erako hitzarmen berria sinatu gabe balego, aurreko urtekoa luzatutzat emango da hurrengo urtera arte.

HITZARMENA HAUSTEA. Bi aldetatik edozeinek laga dezake bertan behera hitzarmen hau bere kabuz. Hala gertatuz gero, hasitako ekintzak bukatzea bermatuko da. Hitzarmena bukatzeko nahia idatziz azaldu, eta hiru hilabetera bukatuko da indarraldia.

AUZIAK. Hitzarmen hau garatzean alderdien artean auziren bat sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzio bidez ebatzi ahal izango dira.

Eta, bi erakundeen adostasunez sinatzen dute hitzarmen hau, ale bikoitzez, goian aipaturiko lekuan eta datan.

Jose Francisco Mendizabal Irigoien,
Zestoako Udaleko alkatea.

Javier Manteca,
Zestoako Arkupe Igandetako Txaranga
elkartearen izenean.